

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA

3034

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 18koa, Herrizaingoko sailburuarena, osagaien artean metal preziatuak dituzten objektuak merkaturatzen eta birziklatzen jarduten dutenek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-betebeharrak nola gauzatu behar dituzten azaltzeko dena.

Herritarren segurtasunaren babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikulua ezartzen duenez, herritarren segurtasunerako nabarmenak diren jarduerak burutzen dituzten pertsona naturalek edo juridikoek dokumentuak eta informazioa erregistratu behar dituzte, indarrean den araudian xedatu bezala. Herritarren segurtasunerako nabarmenak diren jarduera horien artean, bitxien eta metal preziatuen salerosketa dago.

Otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikuluan zerrendatutako establezimenduen titularrei ezartzen zaizkien betebeharrak dira, batetik, erregistro-liburuak izatea, eta, bestetik, aldizka parteak ematea, eta bestelako jakinarazpenak egitea polizia-agintaritzari; izan ere, horien bidez, delitu-jarduerak prebenitu eta esatea lortu nahi da. Betebehar hauek «segurtasun publikoa» atalean kokatzen dira.

Dudarik gabe, baliabide telematikoen erabilerak aurrekaririk gabeko aukera bat eskaintzen du Administrazioak, segurtasun publikoaren arduradun gisa, herritarrei eman beharreko zerbitzua hobetzeko; izan ere, dokumentuak eta informazioa erregistratu behar duten establezimenduek Ertzaintzari berehala emango diote segurtasun publikorako garrantzizko informazioa, eta, horren ondorioz, jarduera horien gaineko kontrola handiagoa izango da.

Agindu honek ezartzen duenez, nahitaezko betebeharra da aipatutako erregistro-liburuak izatea eta, baliabide telematikoz, eredu ofizialaren arabera landutako kontrol-agiriak aurkeztu eta bidaltzea. Izan ere, horien bidez, bitxien eta metal preziatuen salerosketari lotutako delitu-egintzak prebenitu eta esatea lortu nahi da.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 17. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak du bere lurraldean pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikoa gordetzeko eskumena. Hori dela eta, Ertzaintzak du herritarren segurtasunerako jarduera nabarmen horiek kontrolatzeko ahalmena.

Aurretik azaldutako guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez arautu egiten da Ertzaintzari eman beharreko erregistro-agirien eta informazioaren betebeharrak nola gauzatu behar dituzten salerosketa- edo kanbio-etxeek, bahitetxeek, bahi- edo mailegu-dendek eta, oro har, urrezko, zilarrezko edo platinozko objektu erabiliak –harribitxidunak edo perla findunak nahiz halakorik gabeak– merkaturatzen dituztenek, bai eta osagaien artean metal preziatuak dituzten objektu erabiliak baliatzen dituzten birziklatze-industriek eta -tailerrek, galdategiek eta fabrikatzaileek ere.

2. artikulua.– Jarduera hasi eta eteteari buruzko komunikazioak.

Jardunean hasi eta jarduna eteteko egin beharreko komunikazioak –197/1988 Errege Dekretuaren 87. artikuluan ezarritakoak– Ertzaintzari jakinaraziko dizkiote agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren establezimenduek, hargatik eragotzi gabe jarduera horietan aritzeko aipatu errege dekretuan ezarritako baldintzak betetzea.

3. artikulua.– Datuak bide telematikoa erabiliz Ertzaintzari jakinaraztea.

1.– Agindu honetan aipatutako establezimenduen titularrek bide telematikoz jakinarazi behar diote Ertzaintzari euren eragiketei buruzko kontratu-orrietan –hurrengo artikuluan zehazten direnetan– bildutako informazioaren berri, betiere eranskin espezifikoetan establezimendu bakoitzarentzat ezarritakoari jarraikiz.

2.– Informazioa bidaltzeko, administrazioak <http://www.ertzaintza.net> web-orrian ezartzen dituen baldintza teknikoak eta ezaugarriak bete beharko dira, 1. eranskinarekin bat etorriz.

3.– Informazioa jaso eta gero, Ertzaintzak, bide bera erabiliz, jaso izanaren berri emango du.

4. artikulua.– Kontratu-orriak eta erregistro-liburuak.

1.– Salerosketa-etxeek eta metal preziatudun objektu erabiliak merkaturatzen dituzten establezimenduek kontratu-orri bat bete beharko dute, eragiketa bakoitzeko, agindu honen 2. eranskineko ereduari jarraituz. Interesdunak eta establezimenduetako arduradunak, biek, izenpetuko dituzte kontratuak, eta establezimenduetako titularrek hartu behar dute ardura kontratuko datuak eta onartzen diren nortasun-agirietakoak –interesdunak erakusten dituenak– bat datozela egiaztatzeko. Eragiketa batean objektu bat baino gehiago baldin badago tartean, banan-banan jasoko dira guzti-guztiak.

2.– Halaber, salerosketa-etxeek eta metal preziatudun objektu erabiliak merkaturatzen dituzten establezimenduek erregistro-liburu bat izan beharko dute eta, bertan, eskuratzen dituzten objektuak jaso. Urte natural batean betetako kontratu-orriekin osatuko da erregistro-liburua, eta orriak era korrelatiboan ordenatuko dira.

3.– Erregistro-liburuak bost urtez gordeko dira establezimendu horietan, azkenekoz erabili diren egunetik hasita, eta gai horretan ikuskatze-eskumenak dituzten Ertzaintzako kideen eskura egongo dira.

4.– Halako objektuak erabiltzen dituzten birziklatze-industriek, galdategiek eta fabrikatzaileek agindu honen 3. eranskinen ageri diren datuak beteko dituzte, eta kontratu-orriak eta erregistro-liburuak betetzeko, aurreko paragrafoetan ezarritakoari jarraituko diote.

5. artikulua.– Datuak beste bide batzuetatik jakinaraztea.

1.– Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko arrazoiak tarteko, establezimenduek ezin badute bide telematikoen bidez egin 3. artikuluan aipatutako jakinarazpena, idatzi baten bitartez emango diote horren berri Ertzaintzari. Idatzi horretan adierazi beharko dute bide telematikoa ez erabiltzeko zer arrazoi berezi duten. Ertzaintzak erabakiko du halakoetan zer egin.

2.– Datuak bide telematikoz bidaltzerik ez daukanak kontratu-orrietako informazioa Ertzaintzaren bulegoetan aurkeztu beharko du, establezimendua zein lurralde-eremutan dagoen, hari dagokion polizia-etxean. Horretarako, kontratu-orriaren bi kopia eraman beharko ditu: bata poliziaren bulegoetan geratuko da, eta bestea, behar bezala zigilatua, establezimendura bueltatuko da, obligazioa bete izanaren egiaztatgarri.

Kopiekin batera, eragiketa bakoitzean tarteko izan diren objektu guztien argazki bana aurkeztu beharko da, zenbakituta. Argazkien zenbakiek eta kontratu-orrikoek bat etorri behar dute.

6. artikulua.– Informazioa komunikatzeko epea.

1.– Salerosketa-etxeek, bahi- edo mailegu-dendek, bahitetxeek eta, oro har, urrezko, zilarrezko edo platinozko objektu erabiliak –harribitxidunak edo perla findunak nahiz halakorik gabeak– merkaturatzen dituztenek astero jakinarazi beharko dute aste bakoitzean egiten dituzten eragiketei buruzko informazioa. Nolanahi ere, hori baino epe laburragoetan ere egin ahal izango dituzte jakinarazpenak, egoki irizten badiote.

2.– Halako objektuak erabiltzen dituzten birziklatze-industriek, galdategiek eta fabrikatzaileek hilerio jakinarazi beharko dute euren eragiketei buruzko informazioa. Nolanahi ere, hori baino epe laburragoetan ere egin ahal izango dituzte jakinarazpenak, egoki irizten badiote.

3.– Agindu honetan aipatzen diren objektuak desegin edo galdatu ondoren lingote moduan eta antzeko itxuran saldu nahi izanez gero, aurretik horren berri eman beharko da, bide berberak erabiliz, eta gutxienez zazpi egun lehenago, betiere agindu honen 4. eranskinean ezarritako ereduari jarraituz.

7. artikulua.– Objektuak erabilgarri izatea.

1.– Salerosketa-etxeek eta metal preziatudun objektu erabiliak merkaturatzen dituzten establezimenduek euren lokalean gorde beharko dituzte erositako edo jasotako objektuak, eta arlo horretan ikuskatze-eskumenak dituzten Ertzaintzako kideen eskura jarri, hamabost eguneko epean, kasuan kasuko eragiketaren jakinarazpena egiten denetik hasita. Hala ere, dagokion polizia-bulegoak piezak erabiltzeko baimena eman dezake, baldin eta haien legezko jatorria egiaztatua eta frogatua badago; horretarako, aurretik eskabide bat aurkeztu beharko du interesdunak, agindu honen 5. eranskineko ereduari jarraituz.

2.– Nolanahi ere, bahitetxeek mailegu-berme gisa eskuratutako objektuak edonoiz bueltatu ahal izango dizkiete titularrei.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.– Agindu honetan aipatzen diren establezimenduen titularrek sei hilabete izango dituzte, indarrean hasten denetik hasita, aginduan aurreikusitakoetara egokitzeko.

2.– Epe horretan, agindu honetan adierazitako komunikazioak bide telematikoz bidaltzerik ez daukaten establezimenduek zuzenean aurkeztu beharko dute kontratu-orrietako informazioa, Ertzaintzaren bulegoetan, establezimendua zein lurralde-eremutan dagoen, hari dagokion polizia-etxean. Horretarako, kontratu-orriaren bi kopia eraman beharko dituzte: bata poliziaren bulegoetan geratuko da, eta bestea, behar bezala zigilatua, establezimendura bueltatuko da, obligazioa bete izanaren egiaztagarri.

Kopiekin batera, eragiketa bakoitzean tarteko izan diren objektu guztien argazki bana aurkeztu beharko da, zenbakituta. Argazkien zenbakiek bat etorri behar dute erregistro-liburuko idazpenen nahiz kontratu-orrien zenbakiekin.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 18a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

1. ERANSKINA

Datuak bide telematikoak erabiliz Ertzaintzari jakinaraztea.

Aplikazioan sartzeko eta datuen komunikazio telematikoa egiteko zehaztasun orokorrak eta baldintza teknikoak erabiltzailearen gidaliburuan jasota daude, helbide honetan: www.ertzaintza.net.

2. ERANSKINA.-

Metal preziatudun objektu erabiliak merkaturatzen dituzten salerosketa-etxeak eta establezimenduak

1.- Kontratu-orriaren eredia.**Establezimenduaren datuak**

Izena **IFZ**

Helbidea: **Kalea** **Zk.**

Udalerrria

Lurraldea

Eragiketaren datuak

Kontratu zk.:

Data:

Kontratu Mota:

Bahitura txartela Bai Ez

Interesatua

Dokumentu Zk.:

Agiri-mota:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Izena:

Sexua: Emakumea Gizona

Jaioteguna:

Jatorrizko herritartasuna:

Ohiko bizilekua **Kalea** **Zk.**

Udalerrria

2012ko uztailaren 4a, asteazkena

Probintzia, herria

Objektua/k (banakakoak)

Ord.Zk.

Mota: **Pisua:**

Metalak **Kilate-pisua**

Grabaketak: Bai Ez **Detaileak:**

Harriak: Bai Ez **Mota** **Kilate-pisua**

Prezioa:

Objektu Argazkia Bai

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.artikuluarekin bat etorritik eta Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu, informazio hau kudeatzeko, bildutako datu pertsonalak Polizia Zerbitzuetako Datuak Lantzeko Zentroaren fitxategiaren 13. BITXIAK ETA METAL PREZIATUAK SALEROSTEA sartuko direla. Fitxategi automatizatuan agertzen direnek eskubidea dute datuen aurka egiteko nahiz datuak ikusi, zuzendu edo deuseztatzen, fitxategiaren arduradunaren aurrean, Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzan (Larrauri-Mendotxe Bidea 18, 48950 Erandio / Bizkaia).

(e)n, (e)k (a)ren

Establezimenduaren zigilua eta sinadura

Interesatuaren sinadura

Kontratu-orria betetzeko jarraibideak

Orokorrak: Dokumentua, ahal dela, baliabide informatikoz beteko da. Balore alfabetikoak letra larriz idatziko dira. Ezingo da laburdurik erabili, eta mendebaldeko alfabetoaren karaktere espezifikoak erabiliko dira beti

Espezifikoak:

Eragiketa:

1. Kontratu-zenbakia: ordena korrelatiboa izango da, eragiketa bakoitzean
2. Kontratu-eguna: zenbakiduna; formatu hauxe izango da: UUUUHHEE (urtea, hilabete, eguna)
3. Kontratu-mota: EROSKETA edo BAHITURA/BAHIA.

4. Bahitura-txartela: baldin eta kontratua bahiturakoa/bahikoa bada.

Interesduna:

1. Agiri-mota: Honako hauek onartuko dira:

- Espainiarrak: NANA, pasaportea edo gidabaimena.
- Atzerritarrak: pasaportea, nortasun-gutuna edo -agiria (Europar Batasuneko, Andorrako, Islandiako, Suitzako, Norvegiako, Monakoko eta San Marinoko herritarrentzat). Espainian bizi diren atzerritar egoiliarrentzako bizileku-baimena –indarrean dagoena.

2. Sexua: jarri X dagokion laukian.

3. Jaioteguna: zenbakiduna; formatu hauxe izango da: UUUUHHEE (urtea, hilabete, eguna)

4. Nazionalitatea: Nazionalitateko herrialdearen izena adieraziko da.

Objektua:

1. Ordena-zenbakia: Jakinarazitako eragiketa osatzen duten objektuetariko bakoitza banaka jasoko da, zenbaki korrelatibo bat duela, 1etik hasita.

2. Mota: zer den zehaztu behar da (eraztuna, belarritakoak, eskuturrekoa, katea, lepokoa, zintzilikarioa, txapa, domina, zigilua, paparreko orratza, erlojua...)

3. Guztizko pisua: gramotan adieraziko da.

4. Metalak: urrea, zilarra eta platinoa onartuko dira, bai eta horien aleazioak ere.

5. Grabazioak, xehetasunak: jarri X dagokion laukian. Halakorik bada, grabazioen xehetasunak zehaztu beharko dira (izenak, erliebeak, datak, marrazkiak eta abar).

6. Harribitxiak: jarri X dagokion laukian. Halakorik izanez gero, zehaztu beharko da zer harribitxi-mota diren (diamanteak, esmeraldak, errubiak, zafiroak...), eta nolako pisua duten, kilatetan adierazita.

7. Ordaindutako prezioa: eurotan, gehienez bi hamarreneko emanda.

8. Objektuaren argazkia: kontratu-orriarekin batera, eragiketa osatzen duen objektu bakoitzaren argazki bat aurkeztuko da.

2.- Ertzaintzari eman beharreko informazioaren datuak

Ertzaintzari honako informazio hau jakinarazi beharko zaio:

Establezimenduaren datuak:

Izena:

IFZ

Helbidea (kalea, zenbakia, herria, lurralde historikoa):

Eragiketari buruzko datuak:

Kontratu-zenbakia (korrelatiboa izango da, eragiketa bakoitzean)

Kontratu-eguna (formatua: uuuu.hh.ee)

Kontratu-mota: EROSKETA edo BAHITURA/BAHIA.

Bahitura-txartela: hala adieraziko da, baldin eta kontratua bahiturakoa/bahikoa bada.

Interesduna:

Agiri-zenbakia

Agiri-mota: Espainiarrak: NANA, pasaportea edo gidabaimena. Atzerritarrak: Pasaportea, nortasun-gutun edo -agiria, Espainian bizi diren atzerritar egoiliarrentzako bizileku-baimena –indarrean dagoena.

Norbanakoaren identifikazioa (izen-deiturak)

Sexua (E=emakumea / G=gizona)

Jaioteguna (uuuu.hh.ee)

Jatorrizko nazionalitatea (herrialdearen izena)

Ohiko helbidea (kalea, zenbakia, herria, probintzia/herrialdea).

Objektuak (kopurua, objektu-mota, pisua, metalak, kilateak, grabazioak, harribitxiak, prezioa, argazkiak).

3. ERANSKINA.-**Birziklatze-industriak, galdategiak, fabrikatzaileak****1.- Kontratu-orriaren eredia.****Enpresaren datuak**

Izena	<input type="text"/>	IFZ	<input type="text"/>
Helbidea	Kalea	<input type="text"/>	Zk. <input type="text"/>
	Udalerria	<input type="text"/>	
	Lurraldea	<input type="text"/>	

Eragiketaren datuak

Erregistro zk.:	<input type="text"/>
Salmenta data:	<input type="text"/>
Saltzailea	Izena <input type="text"/>
	IFZ <input type="text"/> Lizentzia <input type="text"/>
Eskuratutako kopurua	Legea (milarena) <input type="text"/>

JARRAIBIDEAK

Dokumentua, ahal dela, baliabide informatikoz beteko da. Balore alfabetikoak letra larriz idatziko dira. Ezingo da laburdurarik erabili, eta mendebaldeko alfabetoaren karaktere espezifikoak erabiliko dira beti

2.- Ertzaintzari jakinarazi beharreko datuak.

Ertzaintzari honako informazio hau jakinarazi beharko zaio:

- Enpresari buruzko datuak (izena, IFZ, helbidea –kalea, zenbakia, herria, lurralde historikoa–)
- Eragiketari buruzko datuak:
- Erregistroko hurrenkera-zenbakia
- Salmenta-eguna (formatua: uuuu.hh.ee)
- Saltzailearen izena / helbidea
- IFZ / IFK
- Lizentzia fiskalaren zk.
- Erositako kopurua
- Araztasuna, milarenetan adierazia.
- Espezifikazio orokorrak, adierazi beharreko datuen eremuei buruzkoak:
- Saltzailearen izena adieraztean, hitzen artean hutsune bat utziko da, bestelako zeinurik idatzi gabe.

2012ko uztailearen 4a, asteazkena

- Pertsona fisikoen kasuan, espainiarrentzat honako hauek onartzen dira: NAN, pasaportearen edo gidabaimena; eta atzerritarrentzat: pasaportearen, nortasun-gutuna edo -agiria, Espainian bizi diren atzerritar egoiliarrentzako bizileku-baimena – indarrean dagoena.
- Araztasuna, milarenetan adierazia. Platinoa: (999, 950, 900 edo 850), urrea (999, 916, 750, 585 edo 375), zilarra (999, 925 edo 800).

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.artikuluarekin bat etorritik eta Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu, informazio hau kudeatzeko, bildutako datu pertsonalak Polizia Zerbituetako Datuak Lantzeko Zentroaren fitxategiaren 13. BITXIAK ETA METAL PREZIATUAK SALEROSTEA sartuko direla. Fitxategi automatizatuan agertzen direnek eskubidea dute datuen aurka egiteko nahiz datuak ikusi, zuzendu edo deuseztatzeko, fitxategiaren arduradunaren aurrean, Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzan (Larrauri-Mendotxe Bidea 18, 48950 Erandio / Bizkaia).

(e)n, (e)k (a)ren a

Establezimenduaren zigilua eta sinadura

Saltzailearen sinadura

4. eranskina – Desegitea edo galdatzea**1.- Metal preziatudun objektu erabiliak desegin edo galdatzeko jakinarazpena****Enpresaren datuak**

Izena	<input type="text"/>	IFZ	<input type="text"/>
Helbidea	Kalea	<input type="text"/>	Zk. <input type="text"/>
	Udalerrria	<input type="text"/>	
	Lurraldea	<input type="text"/>	

Eragiketaren datuak

Erregistro zk.:	<input type="text"/>
Erosketa data:	<input type="text"/>

Objektua:

Mota:	<input type="text"/>
Metalak	<input type="text"/>
Pisua:	<input type="text"/>
Prezioa	<input type="text"/>

Saltzailea:

Izena:	<input type="text"/>	IFZ	<input type="text"/>
Helbidea	Kalea	<input type="text"/>	Zk. <input type="text"/>
	Udalerrria	<input type="text"/>	
	Probintzia	<input type="text"/>	

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.artikuluarekin bat etorritik eta Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu, informazio hau kudeatzeko, bildutako datu pertsonalak Polizia Zerbituetako Datuak Lantzeko Zentroaren fitxategiaren 13. BITXIAK ETA METAL PREZIATUAK SALEROSTEA sartuko direla.

Fitxategi automatizatuan agertzen direnek eskubidea dute datuen aurka egiteko nahiz datuak ikusi, zuzendu edo deuseztatzeko, fitxategiaren arduradunaren aurrean, Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzan (Larrauri-Mendotxe Bidea 18, 48950 Erandio / Bizkaia).

(e)n, (e)k (a)ren a

Establezimenduaren zigilua eta sinadura

2.- Ertzaintzari eman beharreko informazioaren datuak

Ertzaintzari honako informazio hau jakinarazi beharko zaio:

Enpresari buruzko datuak (izena, IFZ, helbidea –kalea, zenbakia, herria, lurralde historikoa–)

Eragiketari buruzko datuak:

- Erregistroko hurrenkera-zenbakia
- Salmenta-eguna (formatua: uuuu.hh.ee)
- Objektuak (mota, pisua, metalak, prezioa).
- Saltzailea:
- Izena, IFZ edo IFK, helbidea (kalea, zenbakia, herria, probintzia).

5. eranskina.- Objektua erabilgarri izateko eskabidea.

Enpresaren datuak

Izena: **IFZ**

Helbidea **Kalea** **Zk.**

Udalerrria

Lurraldea

Objektuen datuak

Erregistro zk.

Komunikazio data:

(e)n, (e)ko

Interesdunaren sinadura

--

Zehaztasunak:

- Enpresa eskatzaileari buruzko datuak:
- Izena:
- IFZ
- Helbidea (kalea, zenbakia, herria, lurralde historikoa).

Erabilgarri eduki nahi den objektuari buruzko datuak:

- Erregistroko hurrenkera-zenbakia
- Jakinarazpen-eguna (formatua: uuuu.hh.ee)
- Objektuak (mota, pisua, metalak, prezioa).

5. eranskina.- Objektua erabilgarri izateko eskabidea.**Enpresaren datuak**

Izena: IFZ

Helbidea: **Kalea** **Zk.**

Udalerrria

Lurraldea

Objektuaren datuak:

Erregistroko hurrenkera-zenbakia

Komunikazio-data:

(e)n, (e)ko

Interesdunaren sinadura

Zehaztasunak:

- Enpresa eskatzaileari buruzko datuak:
- Izena:
- IFZ
- Helbidea (kalea, zenbakia, herria, lurralde historikoa).

Erabilgarri eduki nahi den objektuari buruzko datuak:

- Erregistroko hurrenkera-zenbakia
- Jakinarazpen-eguna (formatua: uuuu.hh.ee)
- Objektuak (mota, pisua, metalak, prezioa).